

TOLOSALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko irailaren 10a. IX. urtea. 2.640. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Arandia, Erasun eta Artola dira txapela jantzi dutenak

Joxean Tolosa pilota txapelketa amaierara iritsi da; Amezketako pilotalekua jendez bete da pilotarien ikuskizunaz gozatzeko 07

Asteburuko jai sorta bukatu da

Alkiza, Bedaio, Izaskun, Elduain, Lizartza eta Zizurkilek agur esan diete jaii 04-5



Atzo erretirodunen eguna izan zuten Zizurkilen. IT

→ **Tolosaldeak badu bandera.** Kontxako Bandera eskuratu dute emakumezkoetan Irati Larrañaga eta Ioana Alijostes arraunlari tolosarrek Zumaiako Telmo Deun ontziarekin; gizonzkoetan istiluak tarteko izan arren, Jon Lizarralde Hondarribia ontziarekin astindu du Donostiako Kontxako Bandera 06

Babes ofizialeko bost etxebizitza salduko ditu Tolosako Udalak

Larramendi auzoko etxebizitzak zozketa bidez esleituko ditu udalak; urriaren 30a izango da beharrezko agiriak aurkezteko azken eguna 02

Europako Segala Txapelketatik dominarik gabe itzuli dira segalariak

Almitza Segala Elkarteko kideek egindako lana «nabarmentzekoa» dela adierazi dute, aurtengo edizioko maila «izugarri ona izan baita» 07

Gaztañaga eta Agirresarobe izan dira onenak Zumaiako triatloi proban

Tolosaldeko Triatloi Taldeko kirolariak Gipuzkoako Triatloi Esprinteko txapelketa eskuratu dute, euren lesioak atzean utzita 06

Euskara

matrikula
irailak 2 -13

Bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

Aitzol
Udal Euskaltegia

Rondilla 34-B 3.
20400 TOLOSA
tel.: 943651006 / 943652343

→ **Laburrak****Amezketako jaietako zozketen emaitzak**

AMEZKETA › Amezketako San Bartolome jaietan bi zozketa izan ziren. Batetik, guraso elkar-teak txekorra zozkatu zuen, eta 4.714 zenbakia suertatu zen garaila. Musika eskolako zozketan, berriz, 160. zenbakia izan zen irabazlea, eta 1.000 euroko saria jaso zuen irabazleak.

TAKE antolaturiko 4x4 txapelketa gaur hasiko da

TOLOSA › TAKE beren 25. urteurrena berotzen ari da, azaroan ospatuko baitute. Hori dela eta, 4x4 txapelketa hasiko da gaur, Tolosako Plaza Berrian. 19:00etatik 20:30era bitarte, astearte eta ostegunetan izango dira partidak, taldeko kide ohiak eta egungo kideak elkar ezagutzeko helburuz. 6 jokalariko 16 talde izango dira, eta hilaren 29an jokatuko dute finala.

Aurten 50 urte betetzen dituztenen bazkaria

TOLOSA › Aurten 50 urte betetzen dituztenak, 1963an jaiotakoak, bazkaria antolatzen ari dira. Hilaren 28an, 14:00etan Frontoi jatetxean egin dute hitzordua, eta bazkalondoren DJ batek musika jarriko die. tolosa1963@hotmail.com helbidea erabili behar da izena emateko, eta beharrezkoa da Caja Ruraleko 3008 0156 40 2755567324 kontuan 50 euro sartzea, izena, lagun kopurua eta *1963eko bazkaria* kontzeptua garbi zehaztuz.

Foro errepublikarreko kideen bilera, bihar

TOLOSA › Bihar, irailak 11, ikasurte berria hasiko du Tolosako Foro errepublikarrak. Aurreko urteetako bidetik jarraitzeko, eta aurtengo ikasurtea antolatzeko, 20:00etan bilera izango da Zerkausiko erdialdean, kristalezko gelatxoan. Taldeko arduradunek bertaratu nahi duten herritarrei dei egin diete.

Zozketa bidez esleituko ditu udalak, babes ofizialeko bost etxebizitza

Urriaren 30a izango da, beharrezko eskabidea eta agiriak Tolosako udaletxean aurkezteko azken eguna

Itzea Urkizu Tolosa

Voith-Gorostidi eremuko babes ofizialeko bost etxebizitza salgai jartzea erabaki du Tolosako Udalak, pasa den uztailako osoko bilkuran saltzeko oinarriak onartu eta gero. Udalak 2010ean erosi zituen etxebizitza hauek, eta orain erabaki dute jabetza erregimenean saltzea, zozketa bidez.

Larramendi auzoan, Larramendi eta Madalen kaleetan daude bost etxeak, eta hiru logela dituzte; gainera, guztiek lurpeko garajea dute, eta bik, baita trastelekua ere. Etxebizitzetan, metro karratu erabilgarri bakoitzaren prezioa 1.629,31 eurokoa da, eta honenbestez, 149.293,68 euro eta 169.269,02 arteko prezioa izango dute. Dena den, azalera eta prezioen zehaztapenak, eta oinarri guztiak, www.tolosakoudala.net webgunean daude eskuragarri.

Eskatzaileek, ohi bezala, zenbait baldintza bete beharko dituzte. Bizilekuari dagokionez, Tolosa ohiko bizilekua izan eta bertan erroldatuta urtebete baino gehiago daramatenek eskatu ahal izango dute etxea, alde batetik; bestetik, 15 urtez Tolosan erroldatuta egon direnek ere babes ofizialeko etxebizitza hauetakoren bat eskuratzeko aukera izango dute; azkenik, gutxienez Tolosan urtebetez lanean daramatenek ere eskatu ahal izango dituzte etxebizitzak.

Eskatzaileen ohiko bizilekuari loturiko arauz harago, beste bi irizpide ere zehaztu ditu Tolosako Udalak, babes ofizialeko bost etxebizitza hauetakoren bat eskuratzeko zerrendak osatzerakoan: hasteko, beste etxebizitzarik ezin-go da jabetzan izan, eta gainera, eskatzaileen urteko batz beste-ko diru sarrerak, 39.000 edo 9.000



Larramendi eta Madalen kalean daude, salgai jarri dituzten babes ofizialeko bost etxebizitzak. HITZA

euroren artean egon beharko dute.

Urria amaierara arteko epea

Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza hauetakoren bat eskuratzeko, eskabidea aurkeztu beharko da Tolosako Udalean.

Horretarako, eskaera orria bete beharko da batetik, eta udal-letzeko erregistroan nahiz webgunean bertan lortu ahal izango da.

Eskaera orriarekin batera, hainbat dokumentu ere atxiki beharko dituzte etxebizitzetako zozketan parte hartu nahi dutenek. Besteak beste, NANA, errenta aitortpeneko agiriak, beste etxebizitzarik ez dutela egiaztatze agiriak nahiz errolda agiria beharrezkoak izango dira.

Urriaren 30a izango da izena emateko azken eguna, eta behin epea itxitakoan, onartuen eta

baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu Tolosako Udalak; webgunean eta iragarki taulan 15 egunez ikusgai egongo da zerrenda, eta behin betiko onartuen taldea osatuko dute gero.

9.000 eta 39.000 euro arteko diru sarrerak izan beharko dituzte eskatzaileek urtean**Etxebizitza guztiek hiru logela eta garajea dituzte; bik, gainera, trastelekua dute**

Azkenik, zozketa bidez esleitu-ko dituzte babes ofizialeko bost etxebizitzak, publikoan eta notario aurrean. Aipatzeko da, zozketan etxebizitzarik gabe gera-

tzen diren eskatzaileekin itxaron zerrenda osatuko dutela, norbaitek arauak betetzen ez baditu edo uko egiten badu, hutsuneak bete-tzeko.

Salerosketa kontratua sinatzen dutenek klausula gehigarria izango dute, eta horren bidez, gehienez ere bi hilabeteko epean etxebizitza horietara bizitzera joan beharko dute. Baldintza hau betetzen ez dutenen kontratua bertan behera geratuko da, eta udalak erosleak desjabetzeko eskubidea izango du.

Honenbestez, izena eman edo informazioa eskuratu nahi duenak, udaleko etxebizitza zerbitzura jotzeaz gain, 943 69 74 91 zenbakira dei dezake, eta baita etxebizitza@tolosakoudala.net helbidera idatzi ere. Azkenik, esan bezala, udaleko web atarian ere informazio osatua lortu daiteke.

• tolosa@hitza.info



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

↓ Etxebizitzaren ezaugarriak

Helbidea	Logelak	Azalera	Garajea	Trastelekua	Gehienezko prezioa
Larramendi 14, 2-C	3	82,65m ²	22,60m ²	4,15 m ²	163.045,04 euro
Larramendi 14, 3-C	3	82,65m ²	22,35m ²	-	160.177,46 euro
Larramendi 14, A atikoa	3	88,15m ²	20,70m ²	4,60m ²	169.269,02 euro
Madalen 1, 5-A	3	74,80m ²	21,45m ²	-	149.293,68 euro
Madalen 1, 6-A	3	75m ²	28,45m ²	-	154.191,61 euro

Beldarretik tximeletara



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Bilbao

Iraila hasi berria dugun honetan, hementxe da berriz ekokulturaren txoko xume hau, eta guztia zuei esker, hor atzean ez balego inor... Badakit uda joan dela, horrelakoxea da gure klima. Lehengoan batek esan zidan: «Hau dek udara hau! Astebete berok akatzen ta geo ebie!».

Ekokultura berriro ere zabal-tzeko, gure inguruan askotan gertatzen den, eta beti bezala, kaso gutxi egiten diogun fenomeno batez idatziko dut: animalien eraldaketek. Edo hobeto esanda, beldar batetik nola lortzen den tximeleta bat, edo zapaburu batetik igel bat. Beraz, begiak erne eta garunak martxan!

Sarri, konpostagailura joaten bagara, beldar edo har ugari ikusten ditugu. Begira geratzen bagara, beldar hauek jan eta jan besterik ez dute egiten. Baina beldar hauen itxura ez da etorkizuneko izango duten itxuraren antzekoa izaten; beldar hau eraldatu egingo da eta hegalak dituen heldua bihurtuko da (tximeleta, euli, labezomorro...). Beraz, esan genezake, beldarrak jan eta jan aritzen diren kumetxo handiak direla.

Inoiz pentsatu al duzue zenbait animalik beldarrak zergatik ote dituzten? Ez al litzateke errazago izango, arrautzetik jada animalia helduen gisara jaiotzea, beren hegal eta antenekin? Bada, ez! Zorionez bizidunak konplexuagoak eta interesgarriagoak dira.

Beldarren zeregina jatea da, eta ahal den azkarren potolo bihurtzea. Ostein, beren listuarekin, zeta izeneko haritxo batzuk sortzen dituzte, eta hauekin, pupa deritzon zorro bat eraikitzen dute. Pupa honen barruan, beldarra, gure tripa barruan txuletak zati bat bezala, desegin egiten da; zuku horretatik, berriro lau hegal, sei hanka eta bi antena dituen zomorro heldua aterako da. Ez al dira bizidunak, futbola baino interesgarriagoak? Eta bide batez... merkeagoak?

Zomorro heldu honek normalean, hegan egingo du, beste leku batzuk bilatuko ditu, bikotekidea aurkituko du eta ugaldu egingo da. Heldu honen bizitza oso laburra izango da, eta ez du jateko denborarik izango. Sarri ez dute liseziketa aparatirik, ezta jateko baliu dien ahorik ere, helduak ugaltzeko soilik daude, beraz, zertarako beste guztia? Eta hau da bere espeziearentzako abantaila nagusia.

Zomorro hauek gazte direnean jatea beste kezkarik ez dute, eta heldu direnean ugaltzea dute helburu bakarra. Honela, helduen eta kumeen artean ez dago lehirik, gainera leku desberdinetan bizi dira eta ez dira elkar ikusten. Ez al da hau lana banatzeko sistema oso egokia?

Intsektu ia denek burutzen dute beren bizitzako eraldaketa hau, gutxien pentsatzen dugunek ere bai; adibidez erle, liztor eta inurriek. Hauen kasuan, intsektu oso sozialak direnez, beren kumetokietan dituzte beldarrak, eta pupa bihurtzen direnean goxo-goxo, abarasketan edo lurpeko gelatxoren batean gordetzen dituzte heldu bihurtu arte; azken finean, beren koloniaren etorkizuna dira. Hurrengo batean, zuen konpostagailuan inurri kolonia bat baduzue, eragin aireztagailuarekin eta arrozaren tainako inurri pupak agertuko dira. Apur bat begira geratzen bazarete, ehunka inurri agertuko dira pupa hoiene bila, eta leku seguruago batera eramango dituzte. Nork behar ditu Afrikako sabanako lehoi eta gazelak, etxe alboan honelako dokumentalak edukita?

Baina intsektuez gain, beste izakiek ere asmatu dute beldarren sistema hau. Igelen kasuan oso fenomeno antzekoa dugu, zapaburu ere beldar moduko bat da; jan egiten du eta bat-batean, lau hanka atera, isatsa desagertu eta kanpoko airea arnasten hasten da, igel heldu baten modura. Kasu honetan, igel heldua urte gehiago, bizi daiteke, ez bizitza laburra.

Azkenaldian hondartzara joan bazarete, bertan ikus daiteke beldarra duen beste animalia bat: medusa edo marmoka. Medusa batzuk, anemona deritzen animalien kumeak dira. Anemona hauek ez dira beren lekutik mugitzen eta ingurunean zabaltzeko duten modu bakarra, kume igerilariak sortzea da.

Eta beldarrak gora eta behera, gizakia dator kit gogora. Gizakiak ez du beldarrik, baina umea denean helduarekiko nahiko ezberdina da. Zu eta ni umetxo oso txikiak ginenean, gure amaren barruan, isats txiki batekin igerian, parasito modukoak ginen, bere elikagaiak lapurtzen. Imaginatu, gure umeak zapaburuen modura beldar igerilariak balira? Ospitaletan sehasken ordez igerilak egongo lirarteke. Gero pupatik jada gure seme-alaba heldu jaioko zen, hortz guztiekin, bere kasa jaten duela eta... egia esan, lan gutxiago emango lukete modu honetara seme-alabek!

Eta hau guztia idatzi duenarekin hitz batzuk elkartrukatzeko bioaniztasunetik@hotmail.com edo Twitter-en @bioaniztasunetik. Ongi etorri gurera Ane!!!

Irudia ◉ Tolosa



PAPERAREN ETORKIZUN BERRIRA

Tolosako Paper eskolan hasi dute ikasturte berria, aurkezpen ekitaldiarekin. Erdi mailako eta goi mailako ziklo banatan, ikasle askok eman dute izena, eta Don Bosco ikastetxeko zuzendariak ilusioz ekin dio egitasmoari: «Hemen berriz ikasleak aritzea ametsa zen». Eskerrak eman dizkio udalari, eta zentroa kimika esparruan Euskal Herriatik haragoko erreferentzia dela azpimarratuz, ikasleen aurreikuspenak betetzera etorri direla nabarmendu du. ITZEA URKIZU

Eskualdeko euskaltegi izan nahi du Aitzolek, gainerako udalak ere inplikatur

Aurtengo matrikulazio kanpainaren erdia pasata, jada 170 ikasle izena eman dutela azaldu dute arduradunek

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako Aitzol Udala Euskaltegi-ko langileak hasi dira ikasturte berria prestatzen, eta matrikulazio kanpainaren erdia pasata, «Tolosakoaz gainerako udalak ere proiektuan parte hartzea» lortu nahi dute.

Zuzendaritza berri dute aurtengo Aitzolen, eta horrela, Aman-eko Hernandez eta Pili Otaegi izan ziren aurkezpen agerraldian, Tolosako Udaleko Hezkuntza eta Hizkuntza politikako zinegotzi Inaki Irazabalbeitiarekin batera. Eskualdera zabaltze horretan bat etorri ziren guztiak, izan ere, herri txiki batzuek euskaltegi zerbizua jasotzeko interesa erakutsi diete aurtengo: «Lehendik ere Tolosaldeko herri txikietan aritzen ginen, Larraulen eta Aste-asun esaterako, eta hauez gain, aurtengo Ibarrik eta Adunatik deitu digute. Modu honetara, bialara inplikatu nahi dugu gure funtzionamenduan», azaldu zuen Hernandezek.

Bide honetan, beste udalei dei egin zien Inaki Irazabalbeitiak: «Eskualdeko euskaltegi bakarra denez, betidanik eskualdeko izatea eduki izan du Aitzolek, eta hori aberasgarria da. Gure asmo politikoa, ordea, ez da soilik eskualdeko euskaltegi izatea; gainerako udalak ere proiektu honetan par-



Irazabalbeitia, Hernandez eta Otaegi aurkezpenaren. I URKIZU

te hartzea nahi dugu, eta lan egin beharko dugu horretarako».

Matrikula merkeagoa aurtengo

Euskaltegi-ko izen ematea ordaintze horretan, eta Tolosako Udalaren laguntzaz, ikasleek gutxiago ordaindu beharko dute aurtengo.

Orain arte, matrikularen kostu osoa ordaintzen zuten guztiak, eta klaseetara etortzen ziren ikasleei hobaria itzuli egiten zitzaion. Aurtengo, berriz, matrikularen erdia kobratuko diete hasieratik, eta asistentzia eskasa duten ikasleek beste erdia ordaindu beharko dute gero. Pili Otaegik azpimarratu zuenez, «eremu honetan indar berezia egin behar da gainerako herrietako udalekin, izan ere, kanpokoek gehiago ordaindu behar izaten dute matrikula, eta ikasle asko etortzen dira eskualdetik».

Ostiralera bitarte izena emate-

ko aukera izango da, eta jada 170 ikasle egin dute izen ematea: «Iaz 250 ikasle izan genituen, eta aurtengoan gustura gaude matrikulazio kanpainarekin».

Arduradunek, dena den, izen ematea amaierara arte ez uzteko azaldu dute. Epea amaitutakoan ikasleak onartzen badituzte ere, ordutegia erabakitzeo aukerarik gabe geratuko lirarteke.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperimentazio handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Interes-asa duenak, dei dezala zenbaki hauetara: 943 696882 / 606 521992.

Alkiza, Elduain, Lizartza, Zizurkil eta Bedaio eta Izaskun auzoetan festak ospatu dituzte asteburuan, umore ederrean.

Festa giroa eskualdeko sei gunetan

Iligo Terradillos

Festa nahi zutenak auzoetan du asteburuan, eskualdeko sei gunetan izan baita jai giroa. Alkiza, Lizartza, Zizurkil eta Tolosako Izaskun eta Bedaio auzoetan, hain justu. Haur, gazte zein helduek ederki igarotzeko moduko ekitaldiak izan dituzte batetik eta bestetik.

Zizurkil, esaterako, ostegunetik atzera bitartean aurigildu dira jaietan. Larunbatean biharko izan ziren protagonista, eta giro polita izan zen euren artean egindako jokoen. Auzorik, herri bakoari jendetza izan zen, 500 pertsona baino gehiagorekin. Atzoan, berriz, erretiratuak eskaintako eguna izan zen, errentzako joko eta bazkariarekin.

Tolosako Izaskun auzoan, berriz, ikusmin handia izan zuten larunbatean egin zuten auzoan arteko olimpiadak, Larramendi auzoko taldea izan zelarik garaile. Bedaian, bestalde, gazteok ederki gozatu zuten larunbat

arratsaldean. Batetik zozkatzak eta poneyak izan zituzten, eta bestetik jolasak eta antzerkia, arratsaldekoak, bera. Gaitzeskoan, nabarmentzeko da Almar Irigoinek herenegun egindako herri kirol saioan 150 kiloko zilarrekin emari izan markak.

Elduainen ere hiru egunetan zehar, askotariko ekitaldiak izan dituzte, adin guztietan zuzendutakoak, ohiko joko eta txapelketekin eta dantzaekin. Baita, Alkizan ere. Hemen herriko gazteon artean egindako txarriku proba nahiz gazteen arteko herri kirol saioa nabarmendu behar, giro bikaina sortu baituzten. Sagardo eta txakolin dastatzak eta antzerkiak ere jende ugari erakarri zuten.

Lizartzarrek ere ederki igarotzen dituzte herriko jaiak. Herriarrek osturuko best taldearen artean egindako patata tortilla lehiaketa, sagardo dastatzea, orexararen aurkako kirol desafioa nahiz herenegun egindako urteroko Otsolar dantza taldearen emanaldia izan dira aipagarriak.



Zizurkil | Goian, larunbatean egindako herri bazkaria. Behean, gazteok jolasen, ostiralean. | TERRADILLOS



Izaskun auzoa | Goian, Tolosako auzoan arteko olimpiada. Behean, aizkora apustuan. |

Egin HITZAren HARPIDEDUN

OLASAGASTI kontserba produktua sortia

SEGORE ETXEBERRI nekazalagintza eta laguntza

ZOKATUKO DUGU

hitzza



Elduain | Herriko gazteok antzerkia eskaini zuten ostiralean. | TERRADILLOS



Alkiza | Txirrindulari lasterketa egin zuten gaztearen artean, larunbat goizean. |



Bedaio | Ikusmin handia izan zuten zozkatzak Bedaian, larunbatean. |



Lizartza | Herriaren arteko patata tortilla lehiaketa izan zen larunbat goizean. |



Barrikotas egin zuten ostiralean, Emeterio Arreseko frontoian. | TERRADILLOS

Aranalderen aurkako euroagindu eskaera aztertuko dute gaur

Triangulotik Ibarako plazara manifestazioa egingo dute, 19:30ean, Espiritutze egindako salatzeko helburuz.

I. Terradillos Gara

Jokin Arnalderekin Iheslari gaztearen aurkako euroagindu eskaeraren inguruko erabakia emango du jakitera gaur Pausoko Del Auzitako Instrukzio Ganberak. Gaztearen aurkako eskaera eman eta Espainiatarako egindako salatzeko helburuz hainbat ekimen antolatuko dituzte. Euroaginduauren Aurkako Herri Mugimendua da, esaterako, manifestazioa egingo dute gaur, 19:30ean abiatuta, Tolosako Triangulotik Ibarako plazara.

Herri Mugimenduko kideak eta sentariek Pausoko espantza irango dira gaur goizean Aranalderi elkaritasuna erakusteko. Halaber, erakundearen babesarekin Iheslari gaztearen aurkako salatzeko helburuz hainbat ekimen antolatuko dituzte. Euroaginduauren Aurkako Herri Mugimendua da, esaterako, manifestazioa egingo dute gaur, 19:30ean abiatuta, Tolosako Triangulotik Ibarako plazara.

Erantzun auzo eta zabalak
 Herri Mugimendua Jokin Arnalderekin babes adierazteko antolatuko ekitaldiaren artean, bestalde, ostiralean 70 lagun inguruk parte hartu zuten Barrikotako Emeterio Arrese pilotalekuan egindako barrikotetan. Gaurko manifestazioa herriko gazteok gonbidatu dituzte, oraindik erantzun auzo eta zabalak izan behar duela.

Alkizako Pausoko

Matxulatu zaitze!

Matxulatu zaitze!

943 24 91 41

684 971 943



Hondarribiarrak eta zumaiaarrak garaipena ospatzen Donostia Hiria ontzian. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Kontxako Banderak ere badu zati bat Tolosaldean

Irati Larrañaga, Ioana Alijostes eta Jon Lizarralde Kontxako Bandera irabazi dute euren taldeekin

Mikel Iraola

Gertu zuten igande goizean. Arratsalderako, berriz, eskuetan. Ez da erraza Kontxako Bandera astintzea. «Badu bere pisua» aitortu zuten Nagore Osorok, Zumaiaiko patrioiak, ETBko kameraren aurrean, *Donostia Hiria* itsasontzian saria jaso ondoren. Hala ere, kilometan baino, pisu gehiago du bandera horrek sentimendu, lan, esfortzu, ohore eta garrantzia historikoan neurtuz gero.

Aspaldiko partez, pisu handi horretako kilo batzuk Tolosalde-raino ere iritsi dira, Irati Larrañaga, Ioana Alijostes eta Jon Lizarralderen indarrari esker, eurak izan baitira aurtengo Kontxako Banderaren irabazleak.

Horrela esanda, uler daiteke Zumaiaik hamaika segundoko aldeari eustea lortu zuela, eta Hondarribiak hiru segundo edo gehiagoko tartea atera ziola Urdaibairi. Baina emakumezkoen kasuan soilik eman zen logika hori. Zumaiaik bigarren txanda ere irabaziz eskuratu zuten garaipena.

Hondarribiak aldiz, itsasoan lortu ez zuena –edo lortzen utzi ez ziotena– lurrean lortu zuen. Kontua da, Urdaibai bere kalean sartu zela eta palak gurutzatu eta gero bermeotarrak kanporatzeko erabakia hartu zutela epaileek, hondarribiarren helegiteari kasu egin ez. Estropada amaitsu eta ordu-betera eman zuten epai horren

berri, arraunlari eta zaletu bizkaitarren haserre eta etsipenerako.

Garaipen garbia Zumaiaik

Polemika ororen bestaldean, bigarren plano batean, geratu zen Zumaiaik lortutako garaipena. Garaipen garbia. Eztabadaezina. Merezitako garaipena.

Zumaiarrek errenta zabala zuten euren alde, hamaika segundoko Hibaikarekiko. San Juan ere ez zebilen askoz ere urrutiago. Gorrrek ez zuten ezustekorik nahi, eta hasieratik gogor irten ziren. Aurkariak, baina, porrota garesti saltzeko prest zeuden, eta pasaitarrek hartu zuten aurrea lehen metroetan. «Lehen metroetatik sufritu egin dugu» aitortu zuten estropadaren amaieran Alijostesek. Larrañagak, berriz, ez zuten tostetatik bizi herenegungoa.

Ziabogara iristerako, *Telmo Deun* ontziak hartua zuen berriz ere nagusitasuna. Sanjuandarrak segundo bakarrera ziren, eta errenteriarrek bira. Poparean errenta mantendu, eta zertxobait handitu zuen. Amaieran, hiru segundoko errenta atera zion San Juan, eta bikoitza Hibaikari.

Helmuga gurutzatu bezain laster, negar batean ospatu zuten garaipena gorritxoek, pozaren pozez, emozioz. Garaipen historikoa izan da zumaiarrena, izan ere, Kontxako Bandera irabazi duten lehen euskaldunak izateaz gain, mutilen eta nesken kategorian lorpen hau izaten lehen kluba da. «Sufrimenduak merezi izan du», aitortu zuten Alijostesek.

Nahastea

Goiza ondo zihonan. Bikain. Eguraldia ere hobera egiten hasia zen, bertaratutako mesederako. Gi-

zonezkoen lehen txandan, urte osoan TKE ligan bigarren txandan parekotasun handia erakutsiz lehiatu diren traineruen artean berdintasun handia izan zen. San Pedro, Portugalete eta Tiran parean joan ziren brankaz metro askotan. Bizkaitarrak izan ziren lehenak ziabogan, pasaitar eta galiziarren aurretik. Galziarrek, ordea, oso ondo itzuli ziren, eta txanda irabazte lortu zuten, horien aurretik. Ugaitz Mendizabal iruraren taldeak, berriz, ez zuten asmatu olatuekin –ez zuten horretarako kalerik aproposena– eta sailkapen nagusian postua galdu zuten. Julen Gorostiagaren, Donostiarra, zazpigarren izan zen, Urdaibairen kanporaketaren ondorioz.

Bigarren txanda ere ederra izaten ari zen, azkenaldian Kontxako Badian gogoratzen den estropadarik politena, Urdaibai eta Hondarribiak palak gurutzatu zituzten arte. Bermeotarrak nagusi izan ziren lehen luzean, eta bazirudien ez zuela arazorik izango. Baina Hondarribia poparean ondo moldatzen da, eta hori erakutsi zuen. Kanporaka bost segundo atzetik izatera iritsi bazen ere, aurre hartu zion Urdaibairi. Halako batean, bermeotarrak berdeen kalean sartu eta palak gurutzatu zituzten. Epaileek ez zuten ezer esan amaierara iritsi arte. Baina legeak betetzeko daude, eta udaletxean denbora luzez eztabaidatu ondoren, bizkaitarrak kanporatzeko erabakia hartu zuten. Hortik aurrera, kakanahastea.

Polemikak polemika, eta garaipenak garaipen, Kontxako Bandera badu zati bat Tolosaldean. Eta Tolosaldeak arraun munduan ere bai.

Aimar Agirresarobe, Gipuzkoako txapelketako garaile

Tolosaldeko Triatloi Taldeko partaideak azkarrenak izan ziren Zumaiaiko Esprint modalitateko lasterketan

Erredakzioa Tolosa

Maidar Gaztañaga eta Aimar Agirresarobe, biak Tolosaldeko Triatloi Taldeko (TTT) partaideak, dira Gipuzkoako Triatloi Esprinteko aurtengo txapelkunak. Zumaiaiko Triatloien VII. edizioa jokatu zuten larunbatean, eta Gaztañagak eta Agirresarobek proba irabazi zuten, eta bertan ere Gipuzkoako Txapelketa jokoan zego-

nez, bi garaipenekin itzuli dira Zumaiaitik. Bestalde, 2013. Euskal Herriko zirkuiturako baliagarria izan den azkenaurreko proba izan da Zumaiaikoa.

Esprint modalitatea izaki, 750 metro igeri, 20 kilometro bizikletan eta 5 kilometro oinez egin behar izan zituzten parte hartzaileek. Agirresarobe tolosarrak ordu-bete baino gutxiagoan egin zuten ibilbidea –0:56:55ko denboran, hain zuzen–, eta Gaztañaga ordiziarrek 1:03:39ko denbora behar izan zuten. Biek beraien lesioak ondo gainditu dituztela erakutsi dute, Gaztañaga denboraldi guztian zehar, eta Agirresarobe denboraldiko azkenengo probetatik kanpo egon ondoren.

↓ Zerrenda

GIZONEZKOAK

1. Aimar Agirresarobe	0:56:55
2. Imanol Etxeberria	0:57:15
3. Mikel Mugika	0:57:32

EMAKUMEZKOAK

1. Maidar Gaztañaga	1:03:39
2. Nuria Rodriguez	1:07:10
3. Ainara Pacheco	1:07:25



Gaztañaga eta Agirresarobe podiumean gainontzeko sarituekin. HITZA

Aimar Irigoienek 21 aldiz altxatu du 150 kiloko zilindro zaharra hiru minutuan

M. Iraola Bedaio

Aimar Irigoienek beste marka bat ezarri du: 21 altxaldi burutu ditu hiru minutuko txanda bakarrean 150 kiloko zilindro zaharrekin. Pasa den astean zehar, 20 jasoaldi gainditzeko erronka jarri zion errezildarrak bere buruari, eta Bedaio pilotalekuan jende asko bildu zen gertutik jarraitzeko. Manterola harria erabili zuten proba honetan, normalean erabiltzen dena baino txikiagoa, 56 zentimetro neurtu eta eskuak sartzeko zuloak kantoietan baititu.

Ziotza pilota eskolako bilera egingo dute gaur arratsaldean Zizurkilen

M. Iraola Zizurkil

Zizurkilgo Ziotza pilota eskolak datorren astelehenean, hilak 16, hasiko ditu ikasturte berriko ikastaroak. Zazpi urtetik gorako neska-mutilentzat pilotan edo pakera jokatzeko ikasteko aukera eskaintzen du eskolak. Hori dela eta, izena eman nahi duten neska-mutilen gurasoei bilera bat egingo dute gaur arratsaldeko zazpitan, Iriarte kultur etxean. Bertan, pilota eskolaren egutegiaz eta ikastaroen ordutegiaz informatuko da, besteak beste.



Euskal Herriaren ordezkariak, Italian. ALMITZA

Eskualdeko segalariek ez dute dominarik lortu Europako Segatxapelketan

Emakumeen mailan lehen euskalduna Alazne Etxaburua segalari zizurkildarra izan da, hemezortzigarren eginda

M. Iraola

Pasa den asteburu honetan, Europako Segatxapelketa jokatu da Hego Tirolgo (Italia) Toblach herrian, eta Euskal Herria ordezkariak Almitza Segatxapelketa Elkarteak 15 segalari aritu dira bertan.

Dominen bat lortzea zuten helburuetako bat, baina ez dute arrakastarik izan. Dena den, «aurten-go edizioako maila izugarri ona izan dela ikusita», egindako lana «nabarmenezkoa» dela adierazi dute Almitzako arduradunek, eta gustura azaldu dira Italian bizitako esperientziarekin. «Antolakuntza aldetik ere bikaina izan da».

Dominarik lortu ez duten arren, finkatutako bigarren helburua lortu dute, lehen hamar sailka-

tuen artean hainbat segalari izateak. Gizonezkoen mailan lortu dute, Igor Esnaola-laugarren- eta Bixente Mitxelena-seigarren- izan baitira, 64 partaideen artean. Gainontzean suizarrak izan dira nagusi, hiru dominak beraiek lortu baitzituzten. Armin Betschart izan da txapelketa, Stefan Luöndek lortu du zilarrezko domina, eta Martin Frischkancht izan da podiuma osatu duten segalaria.

«Podiuma oso gertu izan du Igorrek. Pena bat izan da, baina aurkariaren maila ikusita ontzat ematen dugu lortutakoa» azaldu du Garikoitz Llobregat, euskaldunekin batera bidaiatu duen sega epaile altzotarrak.

Emakumezkoen mailan, berriz, «emaitzak nahi baino juxta-goak» izan direla aitortu du Llobregatek. Margit Steinman eta Marie-Luise Löker austriarrak izan dira podiumeko lehen bi postuetan. Hirugarren, Regula Frehner suizarra izan da. Hemezortzigarren postuan sailkatu da lehen emakume euskalduna, Alazne

↓ Sailkapenak

GIZONEZKOAK

1. Armin Betschart (Suitza)
2. Stefan Luönd (Suitza)
3. Martin Frischknecht (Suitza)
4. Igor Esnaola
5. Ruedi Roth (Suitza)
6. Bixente Mitxelena

EMAKUMEZKOAK

1. Margit Steinman (Austria)
2. Marie-Luise Löker (Austria)
3. Regula Frehner (Suitza)
18. Alazne Etxaburua

Etxaburua zizurkildarra, hain zuzen. 35 segalarik hartu zuten parte guztira nesken mailan.

Sega bakarrik ez zen izan Italian, izan ere, euskaldunek herri kirol eta dantza erakustaldiak eskaini zituzten. Horrez gain, turismo pixka bat ere egin dute: «Leku ederrak bisitatzen ari gara», esan zuen Alpeetatik atzo Llobregatek. tolosaldean@hitza.info



Pilotariak eta antolatzaileak sari banaketan. IGOR AGIRRE

Arandia, Erasun eta Artola garaile Joxean Tolosa pilota txapelketan

Jende andana bildu zen Amezketa frontoian, eta pilotariak ikuskizun ederrak eskaini zituzten, batez ere, kadeteetan

M. Iraola Amezketa

Amezketako pilotalekua jendez bete zen XXIV. Joxean Tolosa pilota txapelketako finalak ikuste-ko. Ikusmin handia zen ikusle- gogorlan, eta pilotariak ez zuten kale egin, partida onak eskaini zituzten.

Arratsaldeko lehena, kadete mailakoa, izan zen hiru finala- tiki onena. Emozioz betetako partida estua izan zen. Arandiak aurre hartu zuen, markagailuan 2-8koa ezarri zuen arte. Bakaikoa, ordea, buelta eman zion egoerari, eta 15-10 jarri zen aurretik. Arandiak ez zuen etsi, eta gogor lan egin ostean, zabalera botatako ñaku batekin garaipena lortu zuen (16-18).

Gazteen mailan, Erasun eta

Elizalde izan ziren nor baino nor. Elizalde urduri hasi zen, eta horrek lanak erraztu zizkion Erasuni. Zizurkildarrak bederatzita egin zituen saket. Azkenean, 18-10eko emaitzarekin irabazi zuen Erasunek.

Nagusien mailan, berriz, Artola jauna eta jabe izan zen finalean. Santxok aurre hartu zuen hasieran, 1-4ko emaitzarekin. Baina alegiarrak sakea berreskuratu eta hamabost tanto egin zizkion jarraian, partida ia erabakita utzi. Azkenean, Artola 18-7 gailendu zitzaion Santxori.

Sari banaketaren ondoren, Zaz-

↓ Emaitzak

KADETEAK

Arandia - Bakaikoa 18-16

GAZTEAK

Erasun - Elizalde 18-10

NAGUSIAK

Artola - Santxo 18-7

**Tolosaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	OSTARTEAK
BEROENA	19°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

XVII. Udako Argazki Lehiaketa



URA ETA GARO ARTEAN, JOLASEAN

Udako Argazki Lehiaketan parte hartu duten Axier Gonzalez eta Jone Urrizaren argazkiak dira. Gonzalezek, Tarragonan aterako argazkia bidali du, eta Eneko eta Mattin jolasean ikus daitezke.

Urriza lizartzarrak garo artean atera du argazkia, Nafarroako Ultzaman. Argazkiak, hilaren 23a baino lehen, thargazkiak@hitza.info helbide elektronikora bidali behar dira. GONZALEZ/URRIZA

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ikaztegieta.** Hilaren 11ean, bihar, podologoak izango da herrian, eta txanda hartu nahi dutenek udaletxeko 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu beharko dute ordua hartzeko.

■ **Ikaztegieta.** Ikaztegieta Udalak erretirodunentzako irteera antolatu du. Hilaren 19an, ostegunean, izango da, eta Lizarrara eta Iruñea bisitatuko dituzte. Bazkaria, Iruñeako Baserri jatetxean izango da, eta pertsona bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du. Izena hilaren 16a baino lehen eman beharko da Ikaztegieta udaletxean.

■ **Tolosa.** Hilaren 16an sorospen eta sorosle ikastaroa izango da Tolosan, DYAk antolatuta. Hiru asteko iraupena izango du, eta matrikula 100 euro ordaindu beharko da. Saiok 19:00etatik 21:00etara izango dira. Izena emateko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak hilaren 15erako mendi irteera antolatu du. Erraitzeko lepoa eta Isaba artean izango da. Lakora eta Kartxela mendiak igoko dira. Autobusa San Frantziskotik aterako da 07:00etan, eta sei ordu eta erdiko iraupena izango du. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 13 euro. Izena ematea, 943 65 27 89 te-

léfono zenbakira deituz edo alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikora idatziz egin daiteke.

■ **Tolosa.** Aurten 50 urte betetzen dituztenean arteko bazkaria antolatzen ari dira, 1963 urteko kintoak. Hilaren 28brako antolatu dute bazkaria, Frontoi Jatetxean. 14:00etan hasi, eta bazkalondoren Dj batek musika jarriko du. Izena emateko, tolosa1963@hotmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke. Beharrezkoa izango da, ordea, 50 euroak 3008 0156 40 2755567324 Caja Ruraleko kontuan sartzea. Izena, lagun kopurua eta 1963eko Bazkaria kontzeptua garbi aipatuz. Izena ahalik eta azkarren ematea eskatu dute antolatzaileek guztia behar bezala antolatzeko.

■ **Zizurkil.** Ziotza pilota eskolan hasi nahi duten gaztetxoek gurasoei zuzendutako bilera, 19:00etan, Iriarte kultur etxean.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Agurak



Zorionak!

Oier eta Eñaut. Gaur 9 urte. Ondo-ondo ospatu lagunekin eta familiarekin. Muxu handi bat Enara, aitaxo eta amatxo.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurak